


**8.**  
**EUSKADIKO TURISMOAREN IKUSPEGI**  
**ETA LEHENTASUN ESTRATEGIKOAK (2006-2009)**



Egindako azterketa kuantitatibo eta kualitatiboetatik ateratako ondorioak kontuan hartuta, honako ikuspegi Estrategiko hau planteatu da, euskal turismoak 2006-2009 aldian euskal ekonomia osoan izan behar dituen posizionamendu eta zeregin gisa.

### TURISMO SEKTOREAREN IKUSPEGIA



Nahi den turismoaren ikuspegi horrek:

- *Honako EZAUGARRI hauek ditu:*
  - Turismo iraunkorra Herrialdearen araberakoa (ez masifikatua, *karga-ahalmenaren* araberakoa) eta urtarokotasun txikikoa.
  - Produktu anitzeko helmuga gisa konfiguratua, helmugaren bizi-kalitatearen, aberastasun kultural eta ekonomikoaren eta natura-ingurunearen erakargarritasunean oinarritua.
- *Honako HELBURU OROKOR hauek ditu:*
  - Euskadik hiri-turismoan/hiriko-kulturako turismoan duen posizionamendua finkatzea gure merkatuetan eta batez ere nazioarteko merkatuetan.
  - Negozioei, kongresuei, bilerei eta pizgarriei lotutako turismoa indartzea eta, horretarako, ekipamenduetan egindako inbertsio handiak errentagarri egitea.
  - Natura-turismoa garatzea.
  - Interes bereziko segmentu berrietan sartzea, hala nola honako hauetan:
    - Enoturismoan.
    - Itsas bidaietako turismoan.
    - Natura-turismoan.
    - Beste segmentu batzuetan (kirol-turismoa, erlijio-turismoa, osasun-turismoa).

